



Editoriala

Feminismoaren urtea

2018 *feminismoaren urtea* izan dela gogoratuko da hemendik aurrera. Mobilizazio erraldoia izan da. Indarke-riaren aurka irten ginen, kontsumoa eta zaintzen antolaketa bidegabea salatu genituen eta lan esplotazioaren, justizia patriarkalaren eta egiturazko arrazakeriaren aurrean planto egin genuen. Baina denok dakigu honelako mugimendu bat ez dela sortzen egun batetik bestera. Euskal Herriko mugimendu feministak ibilbide luzea dauka eta, bere has-tapenetatik, sistema kapitalista, kolonialista eta heteropa-triarkal hau jo puntuan izan du.

➤ Euskal Herriko mugimendu femi-nistak ibilbide luzea dauka eta, bere hastapenetatik, sistema kapitalista, kolonialista eta hete-ropatriarkal hau jo puntuan izan du.

LABen feminismoaren alde egin genuen aspaldi eta aliantzak lotzeari ekin genion Euskal Herriko trantsizio feministan parte akti-boa izan gaitzen.

LABen feminismoaren alde egin genuen aspaldi eta aliantzak lotzeari ekin genion Euskal Herriko trantsizio femi-nistan parte aktiboa izan gaitzen. Gure azken Biltzar Na-gusian hau guztia berretsi genuen eta berdintasun politike-tatik politika feministetara pasatzeko apustua egin genuen. Soldataren genero-arrakala sistemak erabiltzen duen tresna dela ohartarazi genuen, berdintasun planak betetzen ez direla edota enpresa gehienek honelako planak egiteko borondaterik ere ez daukatela salatu genuen eta agerian utzi genuen honelako plangintzek ez dutela benetako alda-ketarik ekartzen eta, hortaz, ez direla baliagarriak emaku-meok enplegu eremuan pairatzen ditugun egiturazko dis-kriminazioak gainditzeko. Honetaz gain, enplegua ez ezik, bizitzaren erreprodukzioa posible egiten duen jarduera oro ere lantzat hartu behar dela aldarrikatu genuen. Hitz bitan, kapitalaren aurrean, bizitzaren alde egiten dugu.



Soldaten genero-arrakala

Soldata arrakala ez da lan esparruko afera, jendartearen antolaketaren emaitza baino; soldata arrakala arazo politikoa da.

LABen emakume eta gizonen arteko soldata arrakala oso aspalditik salatu izan dugu, gai honek oihartzun handia hartu eta enpresak zein instituzioak horren kontra daudela esaten hasi baino askoz lehenagotik.

Estatistikek emakume eta gizonen batz besterik jasotzen ditugun soldaten aldea zenbaki zehatzetan islatzen dute eta honek datu objektibo eta erreala ematen digu soldata arrakalaren inguruan -oraindik inork horretaz zalantzarik izatekotan-. Zifra horietan oinarriturik, fenomeno hau sakonago aztertzeari ekin genion. Kasualitateetan ez dugu sinisten, ezta sistema kapitalistaren balizko hutsegiteetan; aitzitik, errebeldeak gara eta gaizki pentsatu ohi dugu eta, horregatik, arin ondorioztatu genuen soldata arrakala sistema kapitalistak erabiltzen duen beste tresna bat baino ez dela, emakumeok bigarren plano batean edukitzeko, lan berbereratik gutxiago kobratzea eta gehienbat emakumeok egiten ditugun lan guztiei balio sozial eta ekonomikoa kentzeko.

Kontzeptu honen inguruan mito asko eta gezur gehiegi sartu nahi izan dizkigute: emakumeok etorkizun laboral eskasa edo balio gutxiago daukaten ikasketak aukeratzen ditugula; arrakala ez dela existitzen; gutxiago kobratzen dugula lan gutxiago egiten dugulako, zaintza lanetan aritu ahal izateko jardunaldia murrizten baitugu... Ene! Ematen du guk geuk aukera-

tzen dugula gutxiago kobratzea, lan gutxiago egitea eta baldintza txarragoetan egitea..., holantxerik, go-goak ematen digulako.

Eta gezur zein engainu artean, azken aldi honetan, instituzioek, patronalak baita zenbait enpresak ere sinistarazi nahi izan digute soldata arrakalaren kontrako borrokan denok ari garela batera, denok erantzukizun berberak bageneuka bezala edo emakumeok honela egoteko egiturazko arrazoirik ez balego bezala.

Guretzat soldata arrakala ez da kantitate bat. Ez datza soldatetan euro gehiago edo gutxiagoko aldean (hori ere baden arren), hortik harago, bizi garenean sistema kapitalistaren isla argia daukagu. Sistema honek gure lanari balioa kendu eta mespetsatzen ditu, bere irabaziaz ahal izateko eta sistemaren antolaketari aldatu behar ez izateko eta, horrela, bizitzaren iraunkortasuna gure bizkar gainean uzteko. Lanaren antolaketari soziala aldatzea borondate politiko kontua da, zeren eta, norbaitek esaten badu soldata arrakalarekin amaitu ahal dela sistema, sistema kapitalista hau, zalantzan jarri gabe, gezurretan ari baita. Eta gezur hau sinisten badugu, betikotu egingo ditugu orden eta eredu berbera, zaintzen eta denboren banaketa bidegabea, jarraituko dugu "egin dezala bakoitzak ahal duena" gupil zoroan, lan egin, zaindu, kontziliatu eta bizi ahal izateko, birrindurik amaitu barik eta inor esplo-tatu gabe. Instituzio publikoek, gobernatzen dituzte-

nen bitartez (EAJ-PNV, adibidez) erantzukizun argia daukate, zaintza zerbitzu publikoak garatzen ez dituztelako, pribatizatzen dituztelako eta ez dutelako ezer egiten zerbitzu publiko hauek kaskartu ez daitezen.

Lana sexuaren arabera dago bereizturik; hau halaxe da, eta ingurura begiratu baino ez dugu behar konturatzeko nork egiten duen zer, non eta ze egoeratan. Lanek ez daukate sexurik, ez dira emakumeenak ezta gizonenak ere... baina lan batek bere balio soziala galtzen du egiten duten gehienak emakumeak badira; baina ez gu horretan aritzen garelako, baizik eta sistemak balioa kendu nahi dielako eta, horrela, batzuek eta besteek egiten ditugun lanen arteko aldea sortuta, emakumeon baldintza kaskarragoak, soldata baxuagoak eta aldi baterakotasun handiagoa justifika ditzakete. Sistema kapitalista honek horrelaxe behar gaitu, bere biziraupe-nerako beharrezkoa duen guztia guk, doan edo merke, bete edo egin dezagun.

Soldata arrakala zifretatik harago doa, dimentsio politikoa dauka. Jaurlaritza eta Nafar Gobernua bide guztietatik ahalgiten ari dira soldata arrakalarekin amaitzeko beren plangintzetan parte har dezagun. Plangintza hauek ez doaz arazoaren muintara, gaia oso azaletik jorratzen dute eta ez dituzte enpresak edo instituzio publikoak behartzen gutxieneko batzuk betetzera. Soldata arrakalaren kontrako borroka enpresen borondatearen esku uztea adar jotze hutsa da. LABen pasa den kurtsoan egiaztatu ahal izan genuen: soldata arrakalaren inguruko informazio eskaera hainbat enpresetan erregistratu genuen (datuak era zabalean eskatu genituen) eta enpresa gehienek erantzun ere ez zuten egin. Baiezkoa eman zuten enpresek, bestalde, gutxi landutako erantzun benetan zehazgabeak eman zituzten. Begi bistan geratzen da, hortaz, enpresek ez daukatela asmo nimiñorik ere soldata arrakalarekin amaitzea helburu duen ezein plangintza instituzionalan parte hartzeko.

Soldata arrakala zenbatekoetan ez datzala esaten dugunean, arrakala soldatatik harago doazen faktoreetan dagoela esan nahi dugu. Soldatetan bada, bai, lan berberetatik edo balio bereko lanetatik gutxiago kobratzen dugunean, baina arrakala plantila sexuaren arabera banatzen den moduetan ere badago: non dauden emakumeak eta non gizonak, ze kategoriatan dauden bananduta, nork betetzen dituen aginte eta zuzendaritza lanpostuak, nork egiten dituen zaintzarekin zerikusia daukaten lanak eta ze balio ematen zaien hauei. Arrakala dago emakumeentzat enpresako zenbait kategoriatara heltzea ezinezkoa denean. Edo

plantilak gehienbat feminizaturik daudenean. Kasu hauetan oso adierazgarria da honako ariketa hau egitea: lan bat hartu eta konparatu zelan balioztatzen den emakumeek egiten dutenean eta gizonezkoek egiten dutenean. Adibide klasiko bat eta fenomeno hau argi islatzen duena garbiketa da. Erreparatu eraikinen eta kaleen garbiketetan. Jarduera berbera da: garbitzea, baina hauetako bat batez ere emakumezkoek egiten dute (eraikinetan), baldintza kaskarragoetan eta soldata baxuagoekin, eta bestea batez ere gizonezkoek egiten dute (kaleetan), soldata altuagoekin eta baldintza hobeagoetan.



Soldata arrakala ez da kantitate bat. Ez datza euro gehiago edo gutxiagoko aldean (hori ere baden arren), hortik harago, bizi garen sistema kapitalistaren isla argia daukagu.

Gure lanei balioa kendu eta mespeztatzen ditu, bere irabaziak handitu ahal izateko eta sistemaren antolaketa aldatu behar ez izateko eta, horrela, bizitzaren iraunkortasuna gure bizkar gainean uzteko.



Soldata arrakalaren inguruko azalpenen "neutraltasuna" salatu behar dugu, hau da, neurri gutxi batzuk hartuta arrakalarekin amaitzea posible dela. Soldata arrakala egiturazko arazoa da eta, hortaz, ezinezkoa da horrekin amaitzea sortzen duen sistema zalantzan jarri barik. Ez da arazo laboral hutsa, arazo hau, funtsean, jendartearen antolaketarena da, hau da, arazo politikoa. Pertsonak zaintzea, garbitzea, hezteak, bizitza posible egiten duten lanak... balio gutxiagokoak badira kotxeak ekoiztea, torlojuak egitea edo harresiak altxatzea baino, honek pentsarazi beharko liguke ea ze jendarte eredutan bizi garen eta zeintzuk diren horren azpian dauden balioak.

Eta, amaitzeko, beste batzuetan salatu izan dugunez, soldata arrakalarik handiena da aipatu ere egiten ez dena: aitortzen diren lanen (eta, hortaz, ordaintzen diren lanen) eta lantzat aitotzen ez direnen artekoa. Arrakala horrekin amaitzen dugunean, amesten dugun mundu horretatik hurbilago egongo gara.

EZ dago bizitza duinik kapitalismo heteropatriarkalean. Aliantza feministak eginez badugu hori aldatzeko plana!

Euskal Herriko emakumeak deitu ditugu greba egitera eta masiboki mobilizatzerara. Plazak eta kaleak emakumez bete nahi ditugu, eztabaida politikoa baldintzatu nahi dugu, eragile politiko eta sozialek gure aldarrikapenak entzutea nahi dugu.

Pasadan urtean egin genuen, aurten erakutsiko dugu ez zela momentuko gauza izan. Greba deialdia egina dago eta martxan gara aurtengo Martxoaren 8an bat eginda oihukatzeke gure bizitzak euren kapitalaren gainetik daudela.

Emakumeok eta emakumeontzat antolatutako greba izango da. Errealitatea iraultzeko helburuarekin antolatutako greba, kapitalismoa salatuz sistema berri bat eraiki behar dugula aldarrikatuko dugu. Hemen eta orain eraiki behar dugu gainera, Euskal Herrian badagoen indarrak baliatuz.

Ziur gaude grebaren arrakasta ospatzeko aukera izango dugula, baina M8a ez da jai eguna izango. Urte osoan borrokatzen ditugun politika instituzionalak, erabaki enpresarialak eta jarrera heteropatriarkalak salatzeke, seinalatzeko eta interpelatzeko greba. eguna da; eta greba M8an dugun erronkari dugun indar guztia-rekin heltzeko aukera ematen digun borroka moldea eta tresna da.

Zaintza izango da ardatz nagusia, baina lan munduan emakumeok bizi dugun egoeraz ahaztu gabe. Prekariatatea, soldaten genero-arrakala, gure lanen gutxiestea, lan kargak, sexu erasoak,.. da emakumeok lantokietan egunero bizi duguna eta greban ikusi behar da. Langileak gara, behar beharrezkoa dugu lan egitea. Baina guk bizi nahi dugu, bizitza duinak nahi ditugu. Eta horretarako lan duinak behar ditugu. Greba feministak emango digu aukera gure aldarrikapenak bazter guztietara zabaltzeko aukera.

Sindikatuak hasieratik egin du bat grebarekin. Gure apustu irmoa da Mugimendu Feministarekin elkarguneak, borrokak eta estrategiak partekatzea. Eta arrazoi gehiago ditugu ere. Greba aukera bat da LABetik egiten dugu sindikalismo feministari bultzada berria emateko. Grebak indarrak biltzeko balio du, eta argi dago: zenbat eta gehiago izan, orduan eta indar gehiago izango dugu patronalarekin eta Euskal Herriko gainontzeko botere ekonomikoekin borrokatzeko.

Grebaren testuingurua gainera, Euskal Herriko emakumeok behar dugun burujabetza prozesua aldarrikatzeko baliatu behar dela uste dugu. Ezinezkoa da egoera iraultzea gure buruaren, gorputzen eta lurraldearen jabe izan gabe. Horrela esan zuen Mundu Martxan Bilbon burututako jardunaldietan, eta guk bat egiten dugu, noski. Greba-

ren diskurtsoan eta helburuetan Euskal Herriaren burujabetza premia bistakoa egin behar da eta feministok burujabetzaren aldeko egiten dugun hautua aldarrikatu behar da.

Greba deitzeak feminismoak momentu honetan duen indarra erakusten du. Baina ezin ukatu emakumeen kontrako indarkeria eta zapalkuntza indartzen ari den testuinguruan gertatzen ari dela susperral-



Onartu behar dugu kezkaz (eta nazkaz) ikusten ari garela sektore batzuk feminismoaren aurrean nola ari diren oldartzen.

Faxismo hutsa batzuen aldetik. Baina hori baino gehiago ikusten dugu. Feminismoak batzuei aberastasuna, pribilegioak eta boterea ematen dien sistema apurtu nahi du eta badakigu ez dutela horrelakorik onartzen ezta onartuko ere.





Mugimendu Feministak mobilizazio jendetsuak egin zituen 2018ko martxoaren 8an. Argazkian antolatutako Greba Feminista historikoa Bilboko udaletxe aurrean.

dia. Feminismoaren urtea bezala izendatu duten honetan prekaritatea handitu da, emakumeen kontrako indarkeria lan munduan errealitate normalizatua izaten jarraitzen du gehiegitan eta politika-mezu instituzional guztiek errealitate hau ezkutatzeko egiten dira. Eta onartu behar dugu kezkaz (eta nazkaz) ikusten ari garela sektore batzuk feminismoaren aurrean nola ari diren oldartzen. Faxismo hutsa batzuen aldetik. Baina hori baino gehiago ikusten dugu. Feminismoak batzuei aberastasuna, pribilegioak eta boterea ematen dien sistema apurtu nahi du eta badakigu ez dutela horrelakorik onartzen ezta onartuko ere.

Borroka indartzeko garaia da eta aliantzak egitea da biderik emankorrena. Sindikalismoak feminismoa behar du langile guztien tresna izango bada eta sindikalismoa da feminismoaren aliatu garrantzitsua emakumeen zapalkuntzari buelta emateko. Sindikalismoa behar beharrezkoa da sistema kapitalistaren kontrako borrokan, baita sistema berri baten eraikuntzan ere, langileak izango bagara bide horretan protagonistak.

Emakume langile asko dago borrokan sektore feminizatueta. Eta lanera joatea borroka bat da sektore guztiz maskulinoak izaten jarraitzen

duten eremuetan lan egiten duten emakumeontzat. Feminista asko ari gara eredu ekonomiko eta sozial berrien borrokan ekonomia feministaren proposamenak integratzen, gaur arteko ikuspegiak aldatzen. Feminismoa errealitate bat da LABen eta horrek posiblea egiten du Mugimendu Feministarekin aliantza sendoak egitea.

Ekonomia birpentsatzeko sindikalismoa eta mugimendu feministaren arteko aliantza ezinbestekoa da. Jendartea eraldatzeko, bizitzak erdigunean jartzeko sistema berri bat lortzeko borrokatzen duen herri mugimenduekin aliantzak, ekonomia araututik kanporatuak izan diren emakume guztiekin aliantzak, arrazismoa eta kolonialismoa borrokatzen dutenekin aliantzak, sistema kapitalista heteropatriarkalarekin bukatzeko borrokatzen dutenekin aliantzak... Aliantzen bitartez izango da edo ez da izango...

Sistema honen aurrean PLANTO! Elkar ikusiko dugu: Greba antolatzeko bileretan, lantokietan greba zabaltzen, gunee feministetan aliantzak egiten eta M8an kalean!!

Emakumeok, feministok, erabakigarriak izan behar dugu.

Fotoberriak



Berdintasunaren aldeko borrokan

Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek soldata arrakala txikitzeko onartutako Estrategia eta Plan Operatiboa arduragabea dela salatu dugu. Azalezkoa neurriak, aholku batzuk eta finantziaziorik gabeko estrategiak. 15 urte dira berdintasun legea onartu zela eta arrakala handitu egin da. Iruzur hutsa da plan honek arrakala gainditzeko balio duela esatea.



Langileen eskubide urraketa da

Entzutegi Nazionalak OTRAS sindikatuaren estatutuak balio-gabetzearen kontra gaudela eta antolatze eskubidea dutela adierazi dugu. Eztabaida konplexua eta korapilatsua dela ukatu gabe, sexu langileen eskubideen alde borrokatzea erabaki genuen azken biltzar nagusian. Martxan da eremu honetan gure jardura nola egingo eta antolatuko dugun erabakitze eztabaida.



Ez dugu iruzurrik babestuko

Plana lantoki guztietan derri-gorrezkoa izatea eskatu dugu betidanik. Buru belarri ibili gara planen bidean parte hartzen diskriminazio egoerak gainditzeko borrokan. Berdintasunaren aldeko borrokan gure konpromisoa erabatekoa delako utziko diogu iruzurretan parte hartzeari. Marketin hutsa diren planetatik alde egingo dugu, Kutxabanken egin dugun bezala.



Emakumeontzat epaitegietan justiziarik ez! ¡No a este sistema que nos maltrata!

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei bide instituzionalek sufrikario erantsia dakarkie salatu dugu Azaroaren 25 honetan. Sistemak emakumeak berriro biktimizatzen ditu: txarto egokituta dagoen justizia zerbitzua, langile gutxi, behar besteko formakuntza ematen ez duena, arretarako ingurune aproposik ez daukana, tratatu egokirik ez...

Ez dugu sinisten justizia patriarkal, klasista, arrazista eta misoginoan. Bestelako justizia nahi dugu, non langileak eta erabiltzaileak, denaren gainetik, pertsonatzat hartuak izango diren eta halaxe tratatuak izango diren.



Emakumeontzat gune libreak bermatzea, lantoki libreak izatea!

Kalean edo etxean badagoen matxismoa lantokietara ez dela iristen pentsatzea utzikeria da. Lantokiak ere feminismoz bustitzeko garaia da.

Komentario sexualak, etengabeko intsinuazio sexualak, baboseoa, ezetzaren aurrean tematzea, poster eta txiste sexistak... oso maiz gertatzen zaizkigu lantokietan, bai.

Gure lankide gizon batzuen ustez, gurekin lan esparrua konpartitzeak gu objektu sexualtzat jotzeko aukera eta eskubidea ematen die. Gauza bihurtzen gaituzte, gure gorputza etengabe sexualizatzen da, eta gure ezetak ez dira onartzen... emakume askorentzat egunerokotasuna da lan eremuan, infernua!

Guretzat jasanezinak diren sexu jazarpen hauei garrantzia kentzen zaienez (ez da horrenbesterako, ez hartu horrela, broma izan da, "estretxa" hutsa zara...), erabateko inpunitateaz gauzatzen dira eta emakumeon jarrera erabat baldintzatzen dute. Eguneroko jazarpen hauek, ea oharkabe pasatzen direnak, ezinbestekoak dira intentsitate handiagoko eraso sexual zein sexisteetarako. Emakumeon kontrako indarkeria matxista ez litzateke posible izango aldez aurretik berau posible egiten duen giro sexista eta inpunea sortzen ez bada.

Alegia, inpunitateak atek zabaltzen dizkie eraso

sexual eta bortxaketei. Jazarpen giroari garrantzia kentzen zaionean eta errua emakumeoi egozten zaigunean, honek emakumeok zaugarri edo bulnerable bihurtzen gaitu, zaugarri eta jazargarri.

"Guztiok biolentzia matxistaren kontra" esaten da, dugu. Baina egin dezagun hausnarketa personal bat: galde diezaiogun geure buruari ea indarkeria matxistak gertu suertatzen direnean jarrera aktiboa benetan hartzen ote dugun; galde diezaiogun geure buruari jarrera parterlanistaz egiten ote dugun edo emakumeen boteretzeari errespetuz begiratzen ote diogun; galde diezaiogun geure buruari ea gizona izateagatik ditudan pribilegioei bizkar emateko prest ote nagoen.

Indarkeria matxistaren kontrako borroka kolektiboa eta pertsonala da, gu eta ni; indarkeria matxistaren kontrako borroka publiko eta pribatua da; indarkeria matxistaren kontrako borroka eguneroko borroka da.

Lantokiak ere emakumeontzako gune libreak!

Askatasuna egunero borrokatzen den eskubidea da!



KAPITALA HAUTSI, BIZITZARI EUTSI!



Hasiera
Inicio

Urtarrilak 18
18 de enero

Otsailak 22
22 de febrero

Irailaren 22an Euskal Herriko Mugimendu Feministaren erabakia

- ✓ Grebaren aurkezpena egituretan.
- ✓ Greba batzordea martxan.
- ✓ Emakume batzarrak eskualdez eskualde.
- ✓ Grebarako plangintzak han eta hemen.
- ✓ Greba martxan jartzeko etxeko lanak LABen.

22 de septiembre decisión del Movimiento Feminista de Euskal Herria

- ✓ Presentación de la huelga en estructuras.
- ✓ Comisión de la huelga en marcha.
- ✓ Reuniones de mujeres por eskualdes.
- ✓ Planificaciones para la huelga.
- ✓ Trabajo interno de LAB para la puesta en marcha de la huelga.

LABeko emakumeen nazio batzarra Donostian

- ✓ Grebarako deialdia lantokietan: zergatik eta zertarako egingo dugu greba.
- ✓ Grebaren lanketa lan merkatu formaletik kanpo dauden emakumeekin.
- ✓ LAB grebarako gunen feministetan lanean.

Asamblea nacional de las mujeres de LAB en Donostia

- ✓ Convocatoria de la huelga en los centros de trabajo: por qué y para qué la huelga.
- ✓ Compartir la huelga con las mujeres que están fuera del mercado laboral formal.
- ✓ Trabajo de LAB en los marcos feministas de la huelga.

Soldata arrakalaren

- ✓ Arrakala ez da mundua aldatze ditugu.
- ✓ Emakumeok plazarik bilatzeko momentu lantokietatik at.

Día contra la brecha

- ✓ La brecha no es nemos propuesta mundo del trabajo.
- ✓ ¡Las mujeres Momento para dentro y fuera de bajo.



Martxoak 8
8 de marzo

Martxoak 9tik aurrera
A partir del 9 de marzo

n kontrako eguna

kopuru bat, lan
eko proposamenak

nto! atxikimenduak
ntua lantokietan eta

na salarial

s una cantidad, te-
tas para cambiar el
jo.

nos plantamos!
buscar adhesiones
e los centros de tra-

KAPITALA HAUTSI, BIZITZARI EUTSI!
Emakume langileok borrokan!

- ✓ Greba eta mobilizazio eguna emakume langileontzat.
- ✓ Mobilizazioetan elkar ikusiko dugu.

KAPITALA HAUTSI, BIZITZARI EUTSI!
¡Mujeres trabajadoras en lucha!

- ✓ Día de movilización y huelga general para las mujeres trabajadoras.
- ✓ Nos vemos en las movilizaciones.

BORROKAN SEGI
BILDUTAKO INDARREKIN

A SEGUIR LUCHANDO
CON RENOVADAS FUERZAS





Editorial

El año del feminismo

2018 pasará a la historia como *el año del feminismo*. Fue una movilización masiva. Denunciamos la violencia machista, la injusta organización de los cuidados, el consumo y nos plantamos ante toda explotación laboral, justicia patriarcal y racismo estructural. Pero todas sabemos que un movimiento así no se levanta de un día para otro. El movimiento feminista en Euskal Herria tiene una larga trayectoria de reivindicación y cuestionamiento de este sistema capitalista, racista, colonialista y heteropatriarcal desde sus comienzos.

LAB apostamos por el feminismo hace tiempo y por ir construyendo alianzas para ser parte activa en la transición feminista de Euskal Herria. En nuestro último congreso nos reafirmamos en ello, saltando de las políticas de igualdad a las políticas feministas. Denunciamos la brecha salarial de género como instrumento del sistema, el incumplimiento de los planes de igualdad o la falta de voluntad para elaborarlos por parte de la mayoría de las empresas, evidenciamos que éstos no estaban propiciando un cambio real que abordara las discriminaciones estructurales que venimos enfrentando las mujeres en el ámbito laboral y reclamamos como trabajo no sólo el empleo sino toda actividad que hace posible la reproducción de la vida. Apostamos por la vida frente al capital.

➤ El movimiento feminista en Euskal Herria tiene una larga trayectoria de reivindicación y cuestionamiento de este sistema capitalista, racista, colonialista y heteropatriarcal.

LAB apostó por el feminismo hace tiempo y por ir construyendo alianzas para ser parte activa en la transición feminista de Euskal Herria.



Brecha salarial por cuestión de género

La brecha salarial no es un asunto laboral sino de organización de la sociedad, es un problema político.

El recorrido de LAB denunciando la brecha salarial entre mujeres y hombres viene de lejos, de mucho antes de que se pusiera el tema en el centro del debate público y empresas e instituciones empezaran a decir que estaban en contra.

Partiendo de una cifra resultado de las estadísticas (la diferencia media que cobramos hombres y mujeres), que nos da un dato objetivo y real sobre su existencia - por si todavía hay alguien que duda de ello - nos pusimos a analizar más en profundidad este fenómeno. No somos dadas a creer en las casualidades ni en los fallos del sistema capitalista. Más bien, somos mal pensadas y rebeldes y, por eso, no tardamos mucho en decir que la brecha salarial era un instrumento más de este sistema capitalista para mantenernos a las mujeres en un segundo plano, cobrando menos por el mismo trabajo y desvalorizando (tanto social como económicamente) todo trabajo realizado mayoritariamente por nosotras.

Nos han querido vender muchos mitos y demasiadas mentiras alrededor de este concepto. Que si las mujeres elegimos estudios con poco futuro laboral o peor valorados, que si la brecha no existe, que si cobramos menos porque trabajamos menos al reducimos las jornadas para atender trabajos de cuidados... ¡Vaya! Que pareciera que nosotras elegimos cobrar menos, trabajar menos y en peores condiciones, así, porque nos apetece...

Y entre las mentiras y los engaños, en los últimos tiempos, por parte de instituciones, patronal e incluso algunas empresas nos han querido hacer creer que en lucha contra la brecha salarial estamos todas juntas, como si tuviéramos todas las mismas responsabilidades o como si no existieran causas estructurales que estuvieran manteniéndonos en estas situaciones.

Para nosotras, la brecha salarial no es una cantidad. No es una cuestión de más o menos euros de diferencia en los sueldos (que también), sino un reflejo claro del sistema en el que vivimos (capitalista) que desvaloriza y desprecia nuestros trabajos para hacerse con los beneficios que de ahí se obtienen, o para no organizarse de tal manera que la vida sea posible sin que sea a nuestra costa. Es una cuestión de voluntad política cambiar la organización social del trabajo porque, quien diga que es posible acabar con la brecha salarial sin tocar ni cuestionar el sistema, este sistema capitalista, miente. Y creerse esa mentira nos lleva a seguir perpetuando el mismo orden, el mismo modelo, el mismo injusto reparto de los cuidados y de los tiempos, el mismo "sálvese quien pueda" para conseguir trabajar, cuidar, conciliar y vivir, sin acabar agotada y sin explotar a nadie. Las instituciones públicas a través de quienes las gobiernan (EAJ-PNV) por ejemplo, tienen una clara responsabilidad al omitir y no desarrollar servicios públicos de cuidados, al privatizarlos o al no

hacer nada frente al deterioro de los servicios públicos vinculados al cuidado.

La división sexual del trabajo existe, no hay más que mirar alrededor para ver quién hace qué, dónde y en qué condiciones. Los trabajos no tienen sexo, no son de hombre ni de mujeres... pero un trabajo pierde valor social cuando lo ocupan mayoritariamente mujeres; pero no porque los ocupemos nosotras, sino porque el sistema quiere desvalorizarlos para generar esa diferencia entre los trabajos que hacen unos y que hacemos otras, para justificar sus peores condiciones, sueldo más bajos y temporalidad. Para mantenernos cubriendo y realizando de manera gratuita o mal pagada todo lo que este sistema capitalista necesita para mantenerse.

La brecha salarial tiene una dimensión política, no es únicamente una cuestión de cifras.

El gobiernos vasco y el navarro están intentando por todos los medios que participemos en sus planes para acabar con la brecha salarial. Planes que no van a la raíz del problema, que tratan el tema de manera bastante superficial y que no obligan a las empresas ni a las administraciones públicas a cumplir ningún mínimo. Dejar en manos de la voluntad de las empresas la lucha contra la brecha salarial nos parece una tomadura de pelo. LAB pudo comprobar el pasado curso que la mayoría de las empresas en las que registramos una solicitud pidiendo datos sobre la brecha salarial (en un sentido amplio) no contestaron. Y las que lo hicieron, dieron unas respuestas tan vagas y poco elaboradas que no hay que ser demasiado perspicaz para darse cuenta de que no tienen ninguna intención de formar parte de ningún plan institucional que vaya a acabar con esta brecha salarial.

Cuando decimos que la brecha salarial no es una cantidad, nos referimos a que la brecha se encuentra en factores más allá del sueldo. Se encuentra en el sueldo, sí, cuando cobramos menos por el mismo trabajo o por un trabajo de igual valor, pero también se encuentra en la distribución de la plantilla por sexo: dónde están las mujeres y dónde los hombres, en qué categorías se distribuyen, quiénes ocupan posiciones de mando y dirección, quién hace los trabajos vinculados a los cuidados y qué valor se les da éstos. Se encuentra cuando se hace imposible para una mujer alcanzar ciertas categorías en la empresa. O cuando las plantillas están mayoritariamente feminizadas. En estos casos, resulta muy revelador hacer el ejercicio de comparar un mismo

trabajo y ver cómo se valora cuando lo hace mujeres o cuando lo hacen hombres. El ejemplo de la limpieza es clásico y nos sirve para ilustrar lo que estamos diciendo: fijaos en la limpieza de edificios y la limpieza de calles. Es una misma actividad – limpiar – pero una la realizan mayoritariamente mujeres (edificios) en peores condiciones y con peores sueldos y la otra la llevan a cabo mayoritariamente hombres (calle) con mayores sueldos y mejores condiciones.



La brecha salarial no es una cantidad.

No es sólo una cuestión de más o menos euros de diferencia en los sueldos, sino un reflejo claro del sistema capitalista que desvaloriza y desprecia nuestros trabajos para hacerse con los beneficios, para no organizarse de tal manera que la vida sea posible sin que sea a nuestra costa



Debemos denunciar la “neutralidad” en las explicaciones sobre la brecha salarial, denunciar la idea de que adoptando algunas medidas se puede acabar con la brecha salarial. La brecha salarial es un problema estructural por lo tanto, no es posible acabar con ella sin cuestionar el sistema que la produce. No es un problema laboral únicamente sino, en el fondo, de organización de la sociedad, es decir, un asunto político. Que cuidar personas, limpiar, educar, realizar tareas que hacen la vida posible... sea menos valorado que producir coches, fabricar tornillos o construir muros nos debería hacer pensar sobre la sociedad en la que vivimos y los valores que en ella subyacen.

Y para finalizar, como hemos denunciado otras veces, la mayor brecha salarial es la que nunca se nombra: la que existe entre los trabajos que se reconocen (y se retribuyen, por tanto) y los que no. Cuando acabemos con esa brecha estaremos más cerca de ese mundo con el que soñamos.

No hay vidas dignas en el capitalismo heteropatriarcal. Nuestro plan: ¡construir alianzas feministas!

Llamamos a todas las mujeres de Euskal Herria a hacer huelga, a movilizarnos masivamente. Queremos volver a ocupar calles y plazas, condicionar el debate público y obligar a todos los agentes políticos y sociales a hablar de nosotras y nuestras reivindicaciones. Lo hicimos el año pasado y vamos a demostrar que no fue una anécdota. La huelga feminista está convocada y nos hemos puesto en marcha para que el 8 de marzo podamos decir conjuntamente que nuestras vidas están por encima de vuestro capital.

Va a ser una huelga dirigida por y para las mujeres. Organizada para transformar la realidad desde el rechazo al sistema capitalista y apostando por construir un sistema nuevo, aquí y ahora, en Euskal Herria. Será una huelga para impulsar la estrategia y lucha feminista mediante la confrontación y la movilización.

Celebraremos el éxito de la huelga, pero el 8 de marzo no va a ser un día fiesta. Será el día para reivindicar todo lo que peleamos el resto del año contra este sistema. Será el momento para denunciar de forma conjunta y masivamente las políticas institucionales, decisiones empresariales y posiciones heteropatriarcales contra las que luchamos. La huelga es el instrumento que nos permite abordar estos retos con la mayor unidad y fuerza posible.

Los cuidados seguirá siendo el eje central, pero sin obviar la situación que vivimos las mujeres en el mundo laboral. Precariedad, brecha salarial, desvalorización de nuestro trabajo, cargas de trabajo insoportables, agresiones sexistas... esta es la realidad de las trabajadoras en los centros de trabajo y tiene que ser parte de la huelga. Necesitamos trabajar, sí. Pero queremos vivir. Y para vivir dignamente necesi-

tamos trabajar dignamente. La huelga feminista nos va a dar la posibilidad de gritarlo en todos los rincones donde haya mujeres.

El sindicato se ha sumado a la huelga desde el principio. Lo hacemos desde la responsabilidad de compartir espacios, luchas y estrategias con el Movimiento Feminista de Euskal Herria. Y porque es una oportunidad para impulsar el sindicalismo feminista

que hacemos desde LAB. Cuanta más fuerza acumulemos, mayor será nuestra capacidad para enfrentarnos a la patronal y al resto de poderes económicos de Euskal Herria.

Y cómo no, entendemos que la huelga genera un escenario muy favorable para reivindicar el proceso soberanista que necesitamos. Es imposible transformar el sis-

tema sin ser dueñas de nuestros cuerpos, territorios y decisiones. Así lo dijo el Movimiento Feminista en las jornadas realizadas por la Marcha Mundial de las Mujeres en Bilbo y desde LAB compartimos totalmente esta afirmación. La necesidad de soberanía para Euskal Herria tiene que estar presente en el discurso y en los objetivos de la huelga feminista, debe quedar clara que ésta es la opción para hacer posibles nuestras demandas.



El sindicalismo necesita al feminismo si queremos ser un instrumento real para el conjunto de la clase trabajadora.

Del mismo modo, el sindicalismo es el principal aliado del feminismo para luchar contra la explotación de las mujeres, disputar poder al capital y construir un sistema diferente desde el protagonismo de la clase trabajadora.





El 8 de marzo del 2018 el Movimiento Feminista realizó movilizaciones multitudinarias. En la imagen podemos ver la que se celebró en Bilbao

La decisión de convocar la huelga muestra la fuerza del feminismo. Pero no podemos negar que la ola feminista se está produciendo mientras crece y se recrudece la opresión contra las mujeres. El año que se ha denominado como "feminista" ha aumentado la precariedad, la violencia contra las mujeres en el mundo laboral sigue siendo una realidad normalizada y se siguen haciendo discursos que ocultan o niegan esta realidad. Tampoco vamos a ocultar nuestra preocupación (y rabia) ante la reacción que está teniendo la ola por parte de sectores que sólo podemos calificar como fascistas. Tenemos muchas razones para alegrarnos del momento que vive el feminismo, pero sin perder la perspectiva, luchamos para romper con un sistema que genera riqueza, privilegios y poder para algunos y no van a renunciar a todo ello.

Toca luchar y la clave está en las alianzas feministas. El sindicalismo necesita al feminismo si queremos ser un instrumento real para el conjunto de la clase trabajadora. Del mismo modo, el sindicalismo es el principal aliado del feminismo para luchar contra la explotación de las mujeres, disputar poder al capital y construir un sistema diferente desde el protagonismo de la clase trabajadora.

Hay muchas mujeres luchando en los sectores feminizados. Para otras muchas, el simple hecho de ir a trabajar es una lucha porque lo hacen en sectores totalmente masculinos donde el acceso de las mujeres sigue siendo una pelea constante. Somos muchas las feministas que trabajamos para integrar los análisis y las propuestas feministas en todos los ámbitos. El feminismo es una realidad en LAB y eso hace posible que la alianza con el movimiento feminista pueda ser una realidad tanto dentro como fuera de los centros de trabajo.

La alianza es fundamental para repensar la economía, transformar la sociedad y construir un sistema que sitúe nuestras vidas en el centro. Alianzas con el MF, con movimientos populares, con las mujeres que trabajan al margen de la economía formal, con las que luchan contra el racismo y el colonialismo, con todas las que apuestan por superar este modelo capitalista heteropatriarcal. Tejemos complicidades, hacemos alianzas, o no será.

¡Nos plantamos ante este sistema! ¡Nos vemos en las reuniones para la huelga, en los centros de trabajo recabando adhesiones, en las asambleas feministas tejiendo alianzas, y el 8 de Marzo en la calle!

Fotonoticias



> Nada nuevo en la lucha por la igualdad real

La Estrategia y Plan Operativo de Acción para reducir la brecha salarial del Gobierno Vasco y Emakunde es una irresponsabilidad y así lo hemos denunciado. Medidas superficiales, algunos consejos y estrategias sin financiación. Hace 15 años que se aprobó la Ley de Igualdad de la CAV y la brecha ha aumentado. Decir que este plan sirve para luchar contra la brecha entre hombres y mujeres es un fraude.



> Es una vulneración de derechos

Hemos denunciado la anulación de los estatutos del sindicato OTRAS por parte de la Audiencia Nacional y reivindicamos el derecho que tienen las trabajadoras del sexo a organizarse. Sin negar ni obviar lo complicado y complejo que es el debate sobre la prostitución, en el último congreso decidimos actuar en defensa de los derechos de las trabajadoras del sexo. El debate sobre cómo hacerlo y organizarlo en LAB está abierto.



> No daremos cobertura a más fraudes

Hemos demandado que los planes de igualdad sean obligatorio en todas las empresas. Nos hemos implicado al máximo en ese camino para luchar contra la discriminación en el mercado laboral. Desde este compromiso con la lucha por la igualdad de derechos y oportunidades de las mujeres hemos retirado la firma del Plan de Kutxabank por ser puro marketing para la empresa.



> Emakumeontzat epaitegietan justiziarik ez! ¡No a este sistema que nos maltrata

El 25 de noviembre denunciamos que las vías institucionales que se ofrecen a las mujeres para enfrentarse a la violencia machista suponen un sufrimiento añadido. El sistema vuelve a victimizar a las mujeres: un servicio mal adaptado a sus funciones, poco personal y sin la formación necesaria, un entorno muy poco adecuado para atender a las víctimas, un trato poco correcto...

No creemos en esta justicia patriarcal, clasista, racista y misógina. Queremos otro modelo de justicia, donde trabajadores, trabajadoras y usuarias sean atendidas y tratadas, sobre todo y ante todo, como personas.



Garantizar espacios libres para las mujeres. ¡Centros de trabajo libres!

Pensar que el machismo que existe en la calle o en casa no llega a las empresas es una irresponsabilidad. Es el momento de llenar de feminismo los centros de trabajo.

Comentarios sexuales, insinuaciones constantes, insistir a pesar del no, posters y chistes machistas... son situaciones que nos ocurren muy a menudo en nuestro trabajo.

Algunos compañeros de trabajo entienden que compartir espacio laboral con nosotras les da la oportunidad y el derecho a tratarnos como objetos sexuales. Cosificarnos, sexualizar permanentemente nuestro cuerpo y no aceptar nuestras negativas es la realidad cotidiana de muchas mujeres trabajadoras, ¡un infierno!

Un acoso insoportable para nosotras, que condiciona nuestra actividad y nuestras posiciones. Y al que, sin embargo, se le resta importancia ("no es para tanto", "no te lo tomes así", "ha sido una broma", "eres una estrecha"...) y se sigue produciendo con total impunidad. Este acoso cotidiano que pasa desapercibido es fundamental para el acoso sexual y sexista de mayor intensidad. La violencia machista contra las mujeres no sería posible si no existiera y se reprodujera este entorno sexista e impune.

La impunidad abre las puertas a las agresiones

sexistas y a las violaciones. Restar importancia al entorno sexista y situar la responsabilidad en las mujeres nos hace vulnerables.

Decimos que todos y todas estamos contra la violencia. Pero hagamos una reflexión personal, propia. Preguntémonos si cuando hemos presenciado episodios de violencia machista, hemos dado un paso y hemos actuado. Preguntémonos si más allá de posturas paternalistas, observamos desde el respeto el empoderamiento de las mujeres. Preguntémonos si estamos dispuestos a renunciar a los privilegios que tenemos por el mero hecho de ser hombres.

La lucha contra la violencia machista es colectiva y personal, nosotras-nosotros y yo. La lucha contra la violencia machista es pública y es privada. La lucha contra la violencia machista es, sobre todo, una lucha en el día a día, en nuestro día a día.

¡Centros de trabajo libres de violencia contra las mujeres!

¡La libertad es un derecho que se combate a diario!